

Ebazpena: R056/2023

Espedientea: E37/2018.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 1a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidentek eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) gatazka planteatu du batzorde honetan, ez dagoelako ados Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak (aurrerantzean, OFPM) emandako irizpide batekin, IMFSLk 2018ko martxoaren 9an planteatutako kontsultari dagokionez. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 37/2018 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- IMFSL sozietateak Madrilen dauka egoitza fiskala; 2016an eta 2017an, 10.000.000 euro baino gehiagoko eragiketa-bolumena izan zuen, eta, gutxi gorabehera, eragiketen % 95 Bizkaian egiten ditu.

2.- IMFSLk kontsulta bat egin zion OFPMri, 2018ko sozietateen gaineko zergari eta BEZari buruzko araudiaren eta ikuskapen- eta kudeaketa-eskumenen inguruan.

3.- EZKOk erantzun jarri aurretik, OFPMk kontsultari erantzun zion, adieraziz foru-aldundiarenak zirela araudia eta ikuskapen-eskumena.

4.- 2018ko martxoaren 9an, IMFSLk kontsulta ia berbera egin zion BFARI:

5.- EZKOk erantzun bat prestatu zuen, eta OFPMri bidali. Bada, OFPMk uste du erantzun horrek OFPMk aurretik emandako irtenbidea aipatu besterik ez zuela egin behar, erantzuna administrazioak ados jarrita idatzi baitzen.

6.- BFA ez dago irizpide horrekin ados, uste baitu bere eskumena murrizten duela; hortaz, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordean erabakirik hartu ez denez, 37/2018 gatazka planteatu du.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena du kontsultak ebazteko, Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua haxe ezartzen baitu Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eginkizunei dagokienez:

«b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administraziok ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

2.- Desadostasunaren balorazioa

Ez dago benetako desadostasunik IMIFSLk egindako kontsultari emandako erantzunaren muinari dagokionez.

Halaber, ez dago benetako desadostasunik kontsultari erantzuteko prozeduraren eta eskumenaren inguruan, batetik, EZKOk OFPMri bidali diolako proposamena eta, bestetik, desadostasuna, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordean konpondu ez denez, Arbitraje Batzordera ekarri dutelako.

Bestalde, ez dakigu zertan egingo liokeen mesede IMFSLri erantzuna OFPMk emandakoaren berdina izateak, dagoeneko eman zaiolako zerga-betebeharrak betetzeko behar den segurtasun juridikoa; era berean, baina, ez dugu ikusten inolako kalterik sor dakiokenik zergadunari aplikagarria zaion araudia zehazten duen erantzun batetik.

Hala, bada, lotuneen aplikazioari buruzko kontsultak ebaztea da Arbitraje Batzorde honen eskumena, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordean egin ezin izan denean; kasu honetan, ordea, ez dago horri buruzko desadostasunik.

Arbitraje Batzordearen ustez, ez da onargarria administrazioen arteko desadostasun horiek, kasu honetan erabat soberakoak, organo honetara

ekartzea, nahikoa lan-zama baitauka dagoeneko eta garaiz kanpoko balizko erantzunak ez liokeelako ezertan lagunduko zergadunari.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Prozedura artxibatutzat jotzea, bestelako izapiderik egin gabe, gerora bere xedea galdu duelako; hau da, arrazoizko epean erantzun bat eman ahal izatea, aseguru-etxeari zerga-betebeharrak betetzeko segurtasun juridikoa emateko.

2.- Erabaki hau Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari eta IMFSLri jakinaraztea.